

Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

GIZARTE LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ANTSOAINGO UDAL IGERILEKUETARAKO 2025eko UDA SASOIRAKO

OINARRIAK

1. Xedea

Deialdi hau Antsoaingo Udalaren 2025-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da, 2025eko otsailaren 27ko 40. NAO on argitaratu da eta 2025. urtean Antsoaingo Udalaren igerilekuetako udako abonua ordaintzeko banakako laguntzak emateko araubidea zehaztea du helburu. Horrela, baliabide gutxi duten pertsonei Antsoaingo gainerako biztanleen berdintasunezko baldintzetan igerilekuetara sartu ahal izatea ahalbidetu nahi zaie.

Diruz lagunduko dira **uda sasoiko abonua bakarrik**. Deialdi hau 2025eko udal aurrekontuetako 1-23112-4820005 idazpenaren kontura, 1.000 euro gehienez.

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izanen da, inola ere, horretarako esleituta dagoena baino handiagoa izan. Laguntza-proposamenak aurrekontu-idazpenaren muga gainditzen badu, eskaerak aurkeztu diren daten arabera lehenetsiko dira.

2. Eskatzaileen betebeharrak

- Antsoainen erroldatuak dauden pertsonentzat bakarrik (2024ko urtarilaren 1a baino lehen).
- Udako igerilekuetara sartzeko baimena bakarrik emanen da.
- Irizpidea da abonua % 50 gehienez merketzea.
- Hemezortzi urtetik beherakoentzat bakarrik.
- Dirulaguntza 14 urtetik beherakoentzat eskatzen den familia-unitateen kasuan, eskatzaileak tutoretzaz arduratzen den pertsona helduak lagunduta joan beharko dira, horrek ere dirulaguntza eska dezakeela.
- Familia-unitate bakoitzeko eskaera bakar bat onartuko da, eta dirulaguntza eska daiteke familia-unitate horretako pertsona bat baino gehiagorentzat.
- Inoiz ere ez zaio dirulaguntzarik emanen Antsoaingo Udalaren zerga-betebeharrak egunean ordainduta ez daukanari.
- Familia-unitatearen urteko errentak, kontzeptu guztiak barne, honako taula honetan ezarritakoak baino txikiagoak izatea (2023 ekitaldiko errenta aitorpena):

FAMILI UNITATEKO KIDE KOPURUA	URTEKO GEHIENENKO ERRENTAK
2 kide	18.200 €
3 kide	20.200 €
4 kide	22.800 €
5 kide	25.400 €
6 kide edo gehiago	28.000 €

Errenta-aitorpenaren 507. laukia (zerga-oinarria) + 529. laukia (errenta salbuetsiak).

Errentatzat hartuko da famili unitatearen diru-sarrera guztiak, honako kontzeptu hauetatik datozenak:

- a) Lanaren etekinak, pentsioak eta prestazio sozial guztiak, horien erregimena edozein dela ere, nahiz eta PFEZ aitorpenean errenta salbuetsi gisa agertu. Besteen konturako lan-sariaren diru-sarrera gordinetatik kenduko dira Gizarte Segurantzari ordainduko kotizazioak gehi eskubide pasiboengatik, nahitaezko mutualitateengatik edo antzeko kontzeptuengatik ordaindutako kopuruak.
 - b) Kapital higigarriaren eta higiezinaren jasotako etekinak.
 - c) Enpresa-jardueren edo lanbide-jardueren etekin garbiak.
 - d) Ondarearen handitzeak eta gutxitzeak.
 - e) 507. Laukia (zerga-oinarria) + errenta-aitorpeneko 529. Laukia (errenta salbuetsiak).
- Errenta: errenta ordaintzeko obligaziorik ez baduzu, Ogasunak emandako azken ekitaldiko datu fiskalen orria eta famili unitatearen diru-sarreraren frogagiriak.
 - Salbuespen egoerak baloratu ahalko dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren txosten teknikoa jaso ondoren.

3. Eskaerak aurkezteko agiriak, epea eta lekua


Interesdunek eskaera eta dokumentazioa aurkeztu beharko dituzte **deialdi hau NAOn argitaratzen den egunetik 2025eko ekainaren 6ra bitartean**, bi egun horiek barne.

Epez kanpoko eskaerak ez dira bideratuko.

Aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira:

1. Eskabide betea, Eranskin gisa atxikia.
2. Dirulaguntza eskatzen jaso nahi duten lagun guztien NAN/AIZ edo pasaportea.
3. Aurreko ekitaldiko Errenta Aitorpena (2023. urtekoa)
4. Beste pertsonak: salbuespen egoeraren txostena.

Agiriak bide hauetako batetik aurkez daiteke:



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxe Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

- Modu telematikoan, udalaren egoitza elektronikoaren bidez: <https://sedeelectronica.ansoain.es>
- Aurrez aurre, Antsoingo Udaleko bulegoetan (Udaletxe plaza 1, Antsoain), astelehenetik ostiralera, 8:30tik 14:00etara. Emanen zaion orri-ereduan erakusten den bezala aurkeztu beharko da.

Laguntza eman baino lehen, ofizioz egiaztatuko dira erroldatzea, zorraren egoera eta Udalarekiko betebeharrak.

Modu berean, Udalak deialdian eskatutako betekizunak egiaztatzeko beharko den beste edozein agiri osagarri eskatu ahalko zaie eskatzaileei.

Errenta Bermatua, Bizitzeko Gutxieneko Errenta edota Pentsio Ez-kontributiboa jasotzen duten pertsonak ez dute agiririk aurkeztu beharra. Aurkeztu behar duten bakarra zera da: "Antsoingo Udaleko igerilekuetako udako sasoiko abonuetarako gizarte laguntzarako eskaera".

4. Eskaeren balorazioa eta ezaugarri orokorrak

Eskaeren balorazioa Ekonomia Arloko eta Antsoingo Udaleko teknikariek egingen dute, horiek txosten bat osatu eta Tokiko Gobernu Batzordeari emanen diote, hori baita deialdia ebazteko eskumena duen organoa.

Udako denboraldia ordaintzeko prezioaren % 50eko dirulaguntza emanen da, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie. Deskontua aplikatuko zaien mailak eta prezioak taula honetakoak dira:

Maila	Prezioa (% 50 kenduta)
5-15 urte	47,50 €
+16 urte	75 €
Laguntzaileak +65 urte	39 €

Eskatzaileei posta elektronikoz edo telefono bidez jakinaraziko zaie udako denboraldia ordaintzeko gizarte-laguntza onartu zaien ala ez.

Udako ordainketa Idakiko sarbide-kontrolan egingen da, eskudirutan edo banku-txartelean, udako bonua tramitatzen den unean.

Dirulaguntza emateko ebazpena honako bide hauen bidez argitaratuko da: Dirulaguntzen Datu-base Nazionala (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, aipatutako lege tsuaren 20. Artikuluan ezarritakoaren arabera).

Antsoain, 2025eko apirilaren 25a

**ESKABIDEA 2025. URTEAN ANTSOAINGO UDALAREN IGERILEKUETAKO UDAKO
DENBORALDIKO ABONUETARAKO GIZARTE LAGUNTZA JASOTZEKO:
18 urtetik beherakoentzat eta, 14 urtetik beherakoak badaude, familia unitate
bakoitzeko heldu batentzat**

INSTANTZIA- ESKAERA

Jauna / Anderea	NAN/IFZ	Tel.
Helbidea	PK	Herria
E-maila:		
☐ Nire izenean:		☐ Beste baten izenean:
Izen-abizenak	NAN/IFZ	Jaiotze data
☐ Udako sasoiko gizarte-laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ditudala adierazten dut.		
☐ Nahitaezko dokumentazioa erantsi dut (NAN/AIZ/Pasaportea eta 2023ko ekitaldiko PFEZ aitorpena)		
☐ Errenta Bermatua, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera edota Kotizazio Gabeko Pentsioak dituzten pertsonak: Ez da beharrezkoa dokumenturik atxikitzea.		
☐ Honekin batera atxikia doa salbuespenezko egoerari buruzko txostena.		
DATUEN BABESA		
Tratamenduaren arduraduna: Antsoaingo Udala. Helburua: Antsoaingo Udaleko igerilekuetako udako denboraldiko abonuetarako gizarte-laguntzak kudeatzea. Eskubideak: eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, baita beste gauza batzuetarako ere, udal bulegoetara joz gero. Informazio gehiago: Pribatutasun politika helbide honetan: https://www.ansoain.es		
Antsoainen, 2025eko-rena		
(Eskaera egiten duenaren sinadura)		